



COMISION DE LA MUJER
LIZARRAKO UDALAREN
DEL AYUNTAMIENTO
EMAKUMEAREN
DE ESTELLA
BATZORDEA
P.º Inmaculada, 1



2012 CONTIGO
AVANZAMOS



JARDUNALDIAK: **Genero-indarkeria** zalantzan jarrita?

Estella-Lizarrako Udalak, “10 urte hausnartuz emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean: Gaur egungo erronkak” jardunaldiak antolatzean, bere kezka erakutsi nahi du 10 urteetako errealitatearen aurrean, non lege espezifikoak onartu diren indarkeria matxistaren edozein manifestazioa errotik ateratzeko (Nafarroan, 2002tik eta Estatuan, 2004tik), aipatu arazoari helduz begirada integralarekin, diziplina-artekoa eta tokian tokikoa.

Jakin badakigu, genero-indarkeria jasan duten emakume biktimei atentzioa hobetzeko mekanismoren bat dela, funtsezkoa gainera, esparru horretan parte hartzen duten lagun guztien prestakuntza eta espezializazioa, izan ere, emakumeek pairatzen duten biktimizazio bikoitza beldurgarria modu horretan arindu daiteke, biktimek ibili behar duten instantzia polizialean, judizialean, sozialetan, osasun zentroetan edo biktimei harrera emateko lekuetan harrera ematen dutenek, hasierako unetik argibide orokorra eta bakoitzaren ezaugarrien eta beharren arabera eskaintzen badituzte.

Aipatu jardunaldi hauek genero-indarkeriaren biktimak zaintzen dituzten profesionalei zuzentzen dira, baita ere indarkeria mota hori errotik erausteko eta berdintasun politikak ezartzearen alde lan egiten duten mugimenduei eta, azkenean, herritarrei orokorrean ere. Helburua da, orain arte eginikoa aztertzea eta buru belarri aritzea behar diren aldaketak lortzeko, eztabaidapean dauden terminoak eta interpretazioak argitzea, indarkeria diziplina anitzetako ikuspegitik heltzea, ikuspuntu ezberdinetatik eta parte hartzen duten pertsona adituen begirada ezberdinetatik, horien artekoak, bizirik atera direnak, erakundeak, berdintasunaren aldeko gizonak, eta genero-indarkeriaren aurka borrokatzen duten plataformak edo mugimenduak.

Azken finean, eztabaida-lekua sortu nahi dugu, esperientzia eta ideiak trukatzeko, genero-indarkeria errotik ateratzeko bidean segitzeko ahalbideratuko diguna, biktimizazio bikoitza saihestuz, tokiak-tokiko errealitateak eta aukerak hemen eta orain ezagutuz, krisirekin eta krisirik gabe.

Lekua: Estella-Lizarrako Kultur Etxea, K/ La Rua, 7

Eguna: asteazkena, 2012ko urriaren 3an

Izena emateko epea: 2012ko urriaren 1era arte. Plaza kopurua gehienez 50

Inskripzioa: 10 €, hamaiketakoarekin. Diploma egiaztagiria emanen da.

JARDUNALDIAREN EGITARAUA

8,45h-09,15h: Akreditazioak.

9,15h-09,30h: Aurkezpen instituzionala.

- NBFiko Zuzendari Txit Gorena edo Gizarte-Ongizatearen zuzendaria
- Gobernuaren Ordezkaritza Txit Gorena.
- Begoña Ganuza Bernaola andrea. Estella-Lizarrako Alkatea
- María Unzué andrea, Berdintasun eta Emakume Arloko zinegotzi-arduraduna

9,30h-10,20h: Inaugurazio-hitzaldia. *“Genero-indarkeria horren larritasun guztiarekin. Kontzeptualizazioa 2012an. Azterketa eta gaur egungo beharrak”*

Hizlaria: **Nuria Varela andrea** Kazetaria. Berdintasunean aditua. Berdintasun Ministroaren Bulegoko lehenbiziko zuzendaria eta Ministerioaren aholkulari 2008 eta 2011 artean. *“Íbamos a ser reinas”* eta *“Feminismo para principiantes”* liburuen egilea.

10,20h-11,15h: Hitzaldia. *“Emakumeen aurkako indarkeriatik bizirik atera diren emakumeentzat eta neskatoentzat justiziara heltzeko oztopoei buruzko ikerketa”*

Hizlaria: **María Naredo andrea**. Zuzenbidean lizentziatua. 1998tik genero-indarkeriaren, diskriminazioaren eta giza-eskubideen inguruko ikerketetan kolaboratzen du. 2003 eta 2006 artean Anministia Internazionalaren *“Emakumeen aurkako indarkeria gehiagorik ez”* kanpaina Espainian koordinatu zuen. Gaur egun nazioarteko aholkulari dabil genero gaietan eta giza-eskubideetan espezializatua.

11,15h Atsedena kafea.

11,30h-12,15h: Hitzaldia: *“Indarkeria psikologikoaren eta mikromatxismoen ikerketa”*.

Hizlaria: **Felicidad Muñoz andrea**. Psikologoa, genero-indarkerian aditua.

12,15h-13,00h: Hitzaldia: *“Sexu erasoak: arreta eta babesa.”*

“Emakumezkoen eta nesken salerosketa sexu-esplotazioaren helburuekin”. *“Ablazioa”*

Hizlariak: Astelehen Lilak eta Munduko medikuak

13,00h-14,00h Mahai-ingurua: *“Nafarroa, gaurko legearen ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak. Eta gizona zer gaitu? Zer?”*

Hizlariak: Genero-indarkeriaren aurkako emakumeen plataforma, APRODEM, Gizonak berdintasunaren alde.

14,00h Etenaldia bazkaltzeko.

15,00h: Munstroa

15,15-16,00 Hitzaldia: *“Maitasun erromantikotik ziberkontrolera klik-kolpeka. Genero-indarkeria gazteen artean sare sozialetan.*

Hizlaria: **Ianire Estébanez andrea**. Psikologoa genero-indarkeria prebenitzeko aditua, ondoko blogaren sortzailea: *“Mi novio me controla... lo normal”*, eta ziber ekintzailea.

16,00h-17,00h: Hitzaldia: *“Aukera juridikoak etorkizunerako genero-indarkeriaren aurkako borrokan. 2004ko Legearen ikerketa, 2003ko Nafarroako Legea eta Europako arautegia”*

Hizlariak: **Ester Erice andrea**. Magistratua. Nafarroako Probintzia-Auzitegiko Presidentea.

- **Carmen Larramendi andrea**. Abokatua eta kriminologoa. CGAEren Emakumearen aurkako Indarkeriarako Azpibatzordearen kidea.

-**NBFI**

“Bikotean indarkeria arriskua baloratzeko eta kudeatzeko lanabesak: ikuspuntu berri bat kriminologiatik parte-hartzeko”.

Hizlaria: **Nahikari Sánchez andrea**. Kriminologoa. Irakaslea Genero-Indarkerian espezializatua Errioxako Segurtasun Eskolan.

17,00h-17,30h. Tokian tokiko protokoloak eta Estella-Lizarrako errealitatea.

Hizlariak: Estella-Lizarrako eta Antsoaingo udaletako berdintasun teknikariak.

17,30h Ondorioak Virginia Imazen kontura

18,00h Jardunaldien amaiera

Síguenos en Facebook aurkituko gaituzu:

Estella-Lizarrako berdintasun arloa Nafarroa

Mira nuestro blog. Begiratu gure bloga

<http://areaigualdad-estellalizarra.com>